



# KULTUROLA

HERNANIN KULTURARAKO  
AZPIEGITURA SORTZEKO  
PROPOSAMENA

kulturola@gmail.com  
[http://: kulturola.blogspot.com](http://kulturola.blogspot.com)

# Egitasmoaren sorrera

---

## Egitasmoaren sorrera

Lehen ideia *Doberan* sortu zen, hain justu 2005-2006an, aurrera begirako egitasmoen hausnarketan, euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko bidean. Talde bati ideia interesgarria iruditu eta lanean jarri zen.

Honako hauek izan ziren abiapuntuko burutazioak:

- “Kafe antzoki” bezalako zerbaiten beharra dago herrian.
- Euskal kulturak izan behar du ardatz.
- Hernaniko herritarren beharrei erantzun behar die.

## Egindako ibilbidea

2006ko irailaren 26an egin zen lehenengo bilera eta bertan talde iraunkor bat sortu zen ideia mamituz joateko.

2006-2007 ikasturtean taldeak oinarriak adostu ondoren, ideia eta oinarriak hainbat elkartetako (hezkuntza, euskara, kultura) kideekin partekatu genituen. Bi bilera egin ziren eta bertan 18 elkarteetako kideek eta euskal kulturaren lanean ari den hainbat pertsonak hartu zuten parte.

Horiekin guztiekin hitz egindakoa honetan labur liteke (lehen diagnosis):

- A.- Halako zerbaiten beharra sumatzen da herrian, une egokia izan liteke eta ilusioa pizten du.
- B.- Asmoa partekatzea eta proiektuaren partaide sentiaraztea eskertzen du jendeak.
- C.- Proiektua aurrera ateratzea zaila bada ere, talde sendoa osatuz eta jendearen eta udalaren inplikazioa lortuz gero, egingarria da.

2007-2008 ikasturtean, berriz, lehen diagnosis abiapuntu, egitasmoa gehiago landu genuen eta “aurreproiektua” deitu genion idatzia prestatu genuen. Aurreproiektuarekin, berriz ere, herriko elkarte guztiengana jo genuen (euskara, hezkuntza eta kultura esparrukoengana batez ere), eta banan-banan elkartu ginen beraiekin, “aurreproiektua” ezagutarazteko, haien jardueren berri ezagutzeko, beraien beharrak jasotzeko, euren inplikazioa bilatzeko eta elkarlanerako gonbita egiteko.

Udaleko Kultura eta parte-hartze zinegotziekin ere harremanetan izan ginen lehen aldiz, gure asmoen berri emateko. Prozesuarekin amaitzeko, berriz, egitasmoa publiko egin genuen apirilaren amaieran egin genuen deialdi irekiaren bidez.

---

Azkenik, 2008-2009 ikasturtean, behin betiko egitasmoa lantzen eta sakontzen aritu gara. Horretarako, berriz ere, taldeengana jo dugu eta hainbat lan-bilera egin ditugu. Bitarte horretan, gainera, udalak bere azpiegitura asmoen berri eman du, prozesu parte-hartzaile bat irekitzeko asmoa, besteak beste. Horren ondorioz, taldeak bere egitasmoa eta udalarena aztertu ditu, egoera berrira egokitzeko eta ikusteko egoera berriaren aurrean zein izan litekeen biderik eraginkorrena gure asmoari bide emateko. Hori dela eta, bilera batzuk izan ditugu udalarekin.

Txosten honetan duzun egitasmo hau horren guztiaren emaitza da, udalaren prozesu parte-hartzailean Hernanin Kulturaren eta Euskararen alorrean ari garen taldeok adostutako proiektu bat elkarrekin aurkezteko asmoz idatzia, ez da, hala ere, azken txostena, gune parte-hartzaile horretan aurkeztu aurretik, zuekin konpartitu nahi baitugu, azken ekarpena jasotzeko.



# Egitasmoa

---

## Oinarrizko ezaugarriak

Herritarren parte hartzea eta sormena etengabe landuz, euskara eta euskal kultura sustatzeko gunea litzateke. Horretarako, hiru zutabe dira ezinbesteko:

- **Heziketa:** Heziketak proiektuaren alderdi guztiak busti behar ditu. Benetako zehar lerro izan behar du, hasi proiektuaren sortze-prozesutik beretik eta gauzatutakoan izango diren alderdi guztietaraino: programazioa, kudeaketa...
- **Azpiegitura:** Partehartzea eta sormena erraztuko dituen gunea izan behar du, taldeei egoki lan egiteko aukera emango diena eta sormenari laguntzeko sinergiak erraztuko dituena.
- **Euskara:** Euskararentzako gune erreferentzial izan behar du, euskararen erabilera sustatzeko lagungarri. Euskara izanda ere ardatz, ordea, herrian elkarrekin bizi diren kultura eta hizkuntzen arteko topaleku ere izan beharko luke.

Ondoren, hortaz, atalez atal aurkeztuko dugu proiektua:

### -Programazioa (4. orr.)

- a) Egitasmoaren eginkizuna Hernaniko Kulturaren egoera orokorraren barruan
- b) Programazioaren ardatzak
- c) Jorratzekoak diren diziplinak

### -Azpiegitura (6. orr.)

- a) Aldeko eta kontrako argudio nagusiak
- b) Hernaniko azpiegituren gabeziak
- c) Ase gabe geratzen diren taldeen beharrak
- d) Azpiegituraren funtzioak
- e) Azpiegituraren ezaugarriak
- f) Kokapena

### -Kudeaketa (12. orr.)

# Programazioa

---

Esan bezala, GUNEAREN eginkizuna kultur arloan kokatuko da, baina kultura zentzu zabalean ulertuta, elkarriketatu ditugun taldeen izaera hain ezberdinak erakusten duen bezala. Beraz, programazioa ere kultur arlokoa izango da.

## A.-Egitasmoaren eginkizuna Hernaniko Kulturaren egoera orokorraren barruan.

Hernaniko kultura produkzioa zabala da eta askotarikoa. Orduan, zer ekarri behar dio egitasmo honek egoera orokor horri?

- Baliabideak eskaini delako produkzio hori ahalik eta egoerarik onenean egin dadin.
- Taldeei hazten lagundu hala kuantitatiboki nola kualitatiboki.
- Produkzio hori erakusteko aukera eman.
- Taldeen arteko koordinazioa eta diziplina arteko kolaborazioa erraztu eta sustatu.
- Taldeen jarraikortasunean eta transmisioan lagundu.
- Hernani diziplina diferenteetako zirkuituetan sartu.
- Euskal Herriko euskarazko produkzio nagusia herrira ekarri.
- Eta oraindik jorratu gabe dauden kultura arloak detektatu eta horien lanketa sustatu eta dinamizatu.

Hori lortzeko bi norabidetako ekarpenak egin beharko ditu:

- Dagoeneko lanean ari diren taldeei bidea erraztu eta lagundu.
- Eta dinamizazioa: motibazio lana, zerbaitetan hasteko interesa dutenei lagundu (baliabideak, diru-laguntzak...) eta jorratzeko dauden arloak detektatu eta sustatu.

## B.-Programazioaren ardatzak

Programazio hitza entzuten dugunean, seguru asko, ia guztioi kultur ekitaldiak etorriko zaizkigu burura. Baina proiektu honek hori baino gehiago izan nahi du, batez ere, fabrika bokazioa du, ekoizpena eta sormena lantzeko fabrikarena; eta eskola bokazioa, heziketa arloan aritzekoa. Beraz, honako hiru ardatz hauek izan behar dituzte, gure ustez, bertan burutuko diren jarduerak:

- 
- *Sormena, produkzioa:* sormenerako leku izan behar du, gauzak egitekoa, ez ikustekoa bakarrik. Diziiplina diferenteetako talde eta pertsonak aukera izango dute bertan lan egiteko, probak egiteko, esperimendatzeko...
  - *Heziketa:* hiru norabidetan ulertuta:
    - Aukera eman behar die herriko taldeei formatzeko, tailerrak antolatzeko, ikastaroak... Horren bidez, euren jarduerara hobetu dezaten, esperimendatu dezaten.
    - Aukera eman behar du herritarrek kultur jardueretara hurbiltzeko ere. Herritarrei begirako ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak...
    - Eta, nola ez, haurrak eta gazteak. Diziiplina horietara hurbilduko badira, esperimendatzeko aukera eman behar zaie: ikastaroak, tailerrak... ikastetxeekin eta heziketa arloan ari diren agenteekin elkarlanean.
  - *Erakusteko lekua:* noski, hau izan ohi da programazioaz ulertu ohi duguna, eta produkzio gehienen helburu. Beraz, hori ere egin beharko du, baina, ikusi bezala, ez hori bakarrik. Ondorengo ardatzak izango ditu atal honek:
    - Aukera eman herriko taldeei erakusteko sortu dutena, euren ekoizpena. Honek funtsezkoa izan behar du.
    - Eta herritik kanpo euskaraz egiten den kultur produkzioaren erakusleiho izan herrian:
      - Hernani diziiplina diferenteetako zirkuituetan sartuta.
      - Herritarrei kalitatezko programazioa eskainiz bai amateur mundukoa, bai profesionala.

### C.-Jorratzekoak diren diziplinak

Eta zein diziiplina? Esana dugu, kultura bere esanahirik zabalenean ulertzen dugu. Egia bada ere, ezin dugula mugatu herrian gaur egun egiten dena, ikuspegi zabalagoa behar dugula, eta ahal den neurrian, etorkizuneko aukerei eta bideei ere atea zabalik utzi behar dizkiegula, gaur gaurkoz, honako diziiplina hauek behintzat lekua izan beharko lukete bere hiru ardatzetan: sormena, heziketa eta erakustea.

- Musika
- Antzerkia
- Dantza
- Literatura
- Bertsolaritza
- Arte plastikoak: batez ere erakusketak egiteko aukera, Zikuñagako tailerraren osagarri.
- Teknologia berrietan oinarritutako produkzioa: zinema, bideoa, diseinua...

# Azpiegitura

---

Guneak dituen helburuak betetzeko ezinbestekoa da azpiegitura egokia edukitzea. Udala irekitzera doan prozesuan ere, azpiegituraz hitzegiten da oraingoz. Gure ustez, kultura proiektu bat hori baino askoz gehiago bada ere, (horren ondorio txosten honen gainerako atalak, guretzat funtsezkoak), egia da, azpiegiturak ezinbestekoak direla.

Ezin ukatu gainera, herriko taldeek premia asko dituztela arlo honetan eta lan bileretan behin eta berriz atera direla premia horiek. Dena den, lan bileretan iritzi bat baino gehiago izan dira eta zalantzak ere azaldu dira.

Hortaz, beharrezkoa ote da azpiegitura hori?

## A.- Aldeko eta aurkako argudio nagusiak

Hona hemen ezetz diotenen edo zalantzak agertzen dituztenen argudioak:

- Oso garestia izango da eta beste lehentasun batzuk daude herrian.
- Zertarako erabiliko litzateke?
- Hernanin edo inguruko herrietan dauden azpiegiturak nahikoak dira, egin behar dena hobeto baliatzea da.
- Bizilagunen arteko arazoak sor ditzake: zarata...

Baietz diotenak, berriz:

- Argudio orokorrak:
  - Garestia izango da baina urte askotarako inbertsioa izango da.
  - Foru Aldundiaren eta Jaurlaritzaren inplikazioa baldin badago egingarria da.
  - Etekina aterako zaio Hernaniko beharrak ondo aztertuta egiten bada.
- Erabiltzaileen ikuspegitik jasotako argudioak:
  - Ikus-entzulearen ikuspegitik: eskaintzen diren ikuskizunak, herrian bertan sortutakoak izan, kanpotik ekarritakoak izan, baldintza duinetan ikusteko aukera izango da; eta, gainera, egun baldintza egokirik ez dagoelako eskaintzen ez den hainbat ikuskizun herrira ekartzerik izango da.
- Erabiltzaile-sortzaileen aldetik:
  - Sormenerako eta sortutakoa erakusteko espazio egokia izango da.
  - Ondo eginez gero, diziplinen arteko harremanetarako eta esperimentaziorako aukerak eskainiko ditu.
  - Baldintza duinetan lan egin ahal izango da.

---

## B.- Hernaniko azpiegituren gabeziak

Zein dira, ordea, Hernaniko azpiegiturek dituzten gabeziak, lan bilera horietan aipatu direnak? Banan-banan aztertuko ditugu dauden azpiegitura nagusienak:

### ➤ Biteri Kultur Etxea

Hernaniko kultur ekintza gehien jasotzen dituen eraikina, neurri batean, saturatua dagoena.

1- Ordutegia: ekintza gehienak lan egunetan antolatu behar dira (astelehenetik ostiralera) eta ordutegi itxia eta mugatua du. Asteburuan apenas erabiltzen da.

2- Espazioa: gelak gainezka daude eta ez dituzte baldintza egokiak betetzen hainbat eta hainbat jarduera egiteko. Areto nagusiaren neurriak eta hartu ahal duen ikusle kopurua mugatuak dira oso; gainera, Kultur etxeko gainontzeko espazioekin ez da bateragarria batzuetan, hau da, bestelako ekintzak daudenean arazoak sortzen dira (liburutegia...). Materiala sartzeko arazoak daude eta gelek, libre geratzen direnak gutxi izateaz gain, ez dute erabilera anitzetarako aukerarik ematen.

3- Baldintza teknikoak: argi eta soinu instalazioa baldin badu ere, ekitaldi mota gutxi batzuentzako balio du soilik eta egoera kaxkarrean dago.

4- Beste batzuk: ez du barra jartzeko aukerarik eta areto nagusian ez dago komunik.

### ➤ Sandiusterrri

1- Ordutegia: oso mugatuta.

2- Espazioa: espazio bakarra du (areto nagusia). Neurriak mugatuak dira oso. Eszenatoki txikia du eta ez du *back-stage* gelarik. Agertokirako igarobidea ikus entzuleak dauden lekutik egin daiteke soilik. Eserleku finakoak ditu, mugitu ezin direnak. Materiala sartzeko arazoak daude hemen ere eta komunik ez dago.

3- Baldintza teknikoak: argi eta soinu instalazioa du baina ekitaldi mota gutxi batzuentzako balio du soilik. Gainera, enpresa batek kudeatzen du soinu ekipoa.

4- Beste batzuk: zaharren egoitzaren parte izateak asko mugatzen du. Ez du barra jartzeko aukerarik.

---

➤ **Milagrosa**

Herriko hiru taldek kudeatzen dute (Kantuz abesbatzak, Txistulari taldeak eta Musika bandak)

- 1- Orduategia: Oso mugatuta.
- 2- Espazioa: Oso txikia da. Ez du eszenatokirik, ez *back-stage* gelarik. Materiala sartzeko arazoak daude hemen ere.
- 3- Baldintza teknikoak: Argi eta soinu instalazioa du baina ekitaldi mota gutxi batzuentzat balio du soilik. Gainera hemen ere enpresa batek kudeatzen du soinu ekipoa.
- 4- Beste batzuk: Erabilera mugatua da oso. Eraikuntzaren ezaugarriek mugatzen dute neurri handi batean: egurrezko lurra, azpiko berogailu sistema, beirazko hormak... Ez du barra jartzeko aukerarik.

➤ **Atsegindegi**

Plaza estalia da, besterik gabe. Gauzak busti gabe egin daitezke, (haizearen arabera), baina ez du inolako azpiegiturarik eskaintzen (argindarra hartzeko gunea eta argiztapena bera ere oso mugatuak dira).

➤ **Kiroldegia**

Zenbait kultur ekintza egiteko erabili izan bada ere, argi dago ez dela horretarako lekurik aproposena. Kirol ekintzetarako prestatutako aretoa da eta horretara mugatu beharko litzateke.

➤ **Tilosetako Musika Kioskoa**

Begi-bistakoak dira dituen mugak. Eguraldiaren menpe dago eta espazio fisiko bezala ere oso mugatua da. Ez ditu ez argi, ez gutxieneko soinu baldintzak betetzen.

---

### C.- Ase gabeko herriko taldeen beharrak

Aipatu azpiegitura horietan gauza asko egiten dira, baina ekitaldi horietariko asko ez dira egin beharko lirakeen baldintzetan egiten. Beste asko, berriz, ezin dira egin, ez dira eta gutxieneko baldintzak betetzen. Taldeek gabezia asko aipatu dituzte egindako bileretan.

Hona hemen horietako batzuk:

- Entsaioak egiteko leku egokiak behar dira, oraingoak ez omen dira eta egokiak.
- Kontzertuak, festak, aktuazioak, lehiaketak, bertso saioak... antolatzeke areto itxi baten premia dago, argi eta soinu baldintza egokiak izango dituen eta gaur egungoek baino jende gehiago sartzeko aukera emango duena; esate baterako, obra bera egun batean baino gehiagotan errepikatu behar ez izateko. Hainbat taldek inguruko herrietara jo behar izaten dute herrian ez dagoelako espazio egokirik.
- Grabazioak egiteko estudioa behar da.
- Musika eskolako ikasleentzat gelak behar dira, ikasle berriak kanpoan geratu ez daitezten.
- Musika eskolako ikasleek entsaioak egiteko lekurik ez dute.
- Auditorio baten premia dago herrian. Akustika aldetik baldintza egokiak baldintza egokiak betetzen dituen areto handi baten premia sumatzen da.
- Ez dago dantzarako baldintza aproposik dituen eszenatokirik (linoleorik ez, argiak, soinua...)
- Azpiegitura egokiaren faltagatik ezin dira programazio bereziak egin: dantza garaikidea...
- Lokalak eta espazioak behar dira hainbat diziplinatan ikastaro motzak, tailerrak... antolatzeke.
- Antzerkiak antolatzeke arazoak egoten dira lekua eta data libreak topatzea zaila delako.
- Ikastetxeetan dantza eta antzerkia ikasten duten taldeentzat lekua falta da.
- Behin behineko erakusketa txikiak jartzeko ez dago espazio librerik.
- Artelan handiak eta karrozak prestatzeko leku aproposik ez dago.
- Igande Musikatua, Hip-Hop Eguna, Kalejira Musikatua, Mozorro Festa, break erakustaldiak eta Artixten Topaketa bezalako ekimenak kalean egiten dira normalean baina eguraldiak laguntzen ez badu, ez dago alternatiba txukunik.
- Gauz musikarekin ezer antolatzeke aukerarik ez dago Hernanin, ez behintzat bizilagunekin arazorik izan gabe.
- Beste talde batzuekin trukeak egin ahal izateko espazio egokiak behar dira.
- Argazkilaritzarako baliabide moderno eta egokiak izango dituen estudio eta lanerako leku handiago bat behar da.
- Ordutegi zabala duen espazioa.
- Erakusketetarako egutegi zabala izango duen erakustokia.

---

## D.- Azpiegituraren funtzioak

Beraz, herriko premiak aseko baditu, honako funtzio hauek betetzeko aukerak eman behar ditu.

- Lanerako eta sormenerako leku: Herriko taldeei aukera eman behar die bertan lan egiteko: hainbat disziplinan entsaioak, grabazioak, argazkilaritza eta multimedia gelak...
- Heziketarako leku: Aukera eman behar die bertan ari direnei formatzeko, baita herritarrei ere: tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak... Antolatzeko gela balioanizdunak, disziplina arteko harremanetarako eta esperimentaziorako gunek...
- Erakustoki: Herrian egiten dena erakusteko leku egokia eta kanpotik ekarritakoekin programazio egokiak osatzeko aukera emango duena: dantza, kontzertuak, erakusketak, formatu txikiko emanaldiak... Beraz, areto nagusi edo auditorio bat beharko luke, baina baita formatu txikiko emanaldiak eskaintzeko aukera ere.

## E.-Azpiegituraren ezaugarriak

Funtzio horiei erantzungo dien espazio honek honako ezaugarri hauek izan beharko lituzke:

- **GUNE PRIBATUA:** Honako hauek izango dituena:
  - \* Agertokia: Tamaina desberdinetara egokitu beharko litzateke. Lurra dantzarako egokia eta akustika aldetik edozein motatako ekitaldietarako prestatua. Materiala eta artistak erraz sartzeko bideak izan behar ditu (arrapalak, tamaina handiko ateak...)
  - \* *Backstagea*: Artistentzat, gutxienez, bi aldagela independente, komuna eta dutxekin, takilak (armairuak) eta gauzak uzteko txokoa.
  - \*Tresneria gela: Soinu tresneria, proiektzio aparatua, biltegia...
  - \*Saio gela: Disko jartzaileen saioak. Tresneriaren gela bera izan liteke.
  - \*Jangela eta sukaldea: Langile eta artistentzat jan edana prestatzeko eta zerbitzatzeko gunea, sukaldea ere izango duena.
  - \*Logela : Artistei bertan lo egiteko aukera emango die.
  - \*Sarrera eta leihatila gela: Ikus entzuleei sarrerak edo informazioa eskaintzeko gunea.
- **GUNE PUBLIKOA:**
  - \*Jendearentzako lekua: Zutik 600–800 pertsona hartzeko aukera duen espazioa. Jarri eta kendu egiten diren aulkiak izango dituena, baita, behar denean espazioa txikitzeko manpara edo horma mugikorrek ere.
  - \*Komunak. 11
  - \*Taberna: Jendearen zerbitzu modura, diru iturri ere izan liteke. Bere biltegia izango luke tabernako materiala gordetzeko.

---

➤ **GELA BALIOANIZDUNAK**

Tailerrak, erakusketak, entsaioak, areto txikia, esperimentatzeko guneak... jasotzeko aukera eman beharko lukete.

➤ **MUSIKA ESKOLA**

Musika eskolaren premiak ikusita, uste dugu musika eskola ere espazio honetan ere integratu litekeela, eta bere espazio propioa izango luke.

➤ **BESTE HAINBAT ESPAZIO:**

- **GRABAZIO ESTUDIOA**

Audio eta bideo grabazioak egiteko prestatua. Gela multimedia ere txertatu liteke bertan eta aukera emango luke irrati tailerrak egiteko.

- **ARGAZKI ESTUDIOA**

Gaur egun disziplina honek behar dituen baliabideak izango dituena.

- **BILTEGIA**

Materiala gordetzeko, karrozak prestatzeko txokoa ere izango duena.

- **KUDEAKETA GELAK**

Langileentzako gelak.

- **APARKALEKUA**

Publikoa zein pribatua. Areto nagusirako sarbidea izango duena.

## **F.- Kokapena**

Eraikinari bere etekin guztia aterako bazaio, ezinbestekoak dira honako baldintza hauek:

-Erdigunean egotea.

-Udal lurzorua izatea eta berau eraikigarria izatea.

-Ondo komunikatua egotea, batez ere garraio publikoarekin.

-Bizilagunik ez izatea gertu.

Hainbat leku ere aipatu izan dira: Urbieta kalea, Udalak berak aipatua prentsan; Goiz Eguzkiko behealdea, Paradorea...

# Kudeaketa

---

Esan dugu heziketak zehar lerroa izan behar duela gure proiektuan, eta proiektuaren alderdi guztiak busti behar dituela sortze prozesutik beretik.

Hortaz, kudeaketan ere, heziketaren ikuspegi horrek bertan egon behar du.

➤ **Izaera juridikoa finkatzerakoan:**

Udala (herritarren ordezkariak) eta herritarrak elkarlanean aritzea erraztuko duen izaera Juridikoa landu beharko litzateke elkarlanean. Udal taldearen edo bertan lanean ari diren taldeen ordezkarien aldaketek ez lukete baldintzatu behar proiektuaren biziraupena eta aldean arteko elkarlana.

➤ **Barne araudia gauzatzekoan:**

Partaide guztien artean proposatua, eztabaidatua eta adostua izan beharko luke. Asmo hori ongi bideratzeko eta lagungarri gisa, prestakuntza ikastaro irekiak aurreikusten ditugu.

➤ **Parte hartzea garatzeko moduan:**

- Errespetuan edota berdintasunean oinarritua.
- Burujabetzan edota autonomia osoan egindako prozesuan finkatua.
- Ardura eta erantzukizunean eraikia.